

Astekaria

# BARREN

*elgoi*

## Mendizale astea



mr-  
ELKARTEA


# ZEZENBIDE

**0 es 0**    
**auto-eskola**

San Frantzisko 43,  
Tr 74 27 20



# ZURE PAPERA GARRANTZETSUA DA



## NOLA ERABILI KONTENEDOREAK?

||| PAPERA eta KARTOIA  
bakarrik sartu behar dira.

||| KARTOIA tolestuta edo  
zaituta sartu.

■ KONTENEDORE barrura  
bota, ez egin paper pilak  
kontenedore inguruan.

**INOLAKO  
ZALANTZARIK  
BADUZUE, DEITU  
1:7 70 07 99**



**DEBA BEHEKO MANKOMUNITATEA**  
Egiguren-Tarren, 2 behea, 439 Posta Kutxa  
20600 EIBAR

**elgoiBARREN**  
Nafarroa enparantza 2  
7: 74 41 12

**ARGITARATZAILEA:**

Elgoibarko Izarra.

**1AGUNTZAILEA:**

Elgoibarko Udala.

**ZUZENDARIA:**

Alberto Agirreazaldegi.

**HIZKUNTZA ARDURADUNA:**

Anjel Ugarteburu.

**ERREDAKZIO KONTSEILUA:**

Iñaki Arrieta, Antton Bergara,  
Eduarne Bilbao, Rosa Iriondo,  
Jose Inazio Sarasua.

**KAZETARIAK:**

Ainhoa Ladoso,

Jasone Osoro.

**MAKETATZAILEAK:**

Moite Rementeria,  
Edu Sanz.

**PUBLIZITATEA:**

Nekane Etxaniz.

**ADMINISTRAZIOA:**

Josune Fernandez,  
M. Angeles Ortuoste.

**KOLABORATZAILEAK:**

Irati Agirreazaldegi, Itziar Agirregomezkorta, Ana Aizpiri, Myriam Aldazabal, Isabel Ansola, Nere Arostegi, Gotzon Arrieta, Pello Arrieta, Belen Arrizabalaga, Ainara Burgaina, Urtzi Etxabe, Asier Etxaniz, Sugar Etxaniz, Felix Etzeberria, Izaro Etxegibel, Enez Ezenarra, Itziar Fernandez, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Gotzon Garate, Amaia Gorosliza, Alfonso Guilla, Maile Iriondo, Ekaitz Isasi, KOKOE, Enrike Larrañaga, Imanol Larrañaga, Haritz Leon, Jesus Mari Makazaga, Aitor Maya, Iñaki Odriozola, Ixa Sanchez, Jose Inazio Sarasua, Oihana Tarragual, Alain Ulazia, Olga Unzilla, Igor Vazquez, Ana Vila, Miryam Villasante, Alaitz Vives, Aitor Zabaleta, Yulen Zabaleta.

**BANAKETA ARDURADUNA:**

Imanol Larrañaga

**INPRIMATEGIA:**

Gertu koop. E.  
(Zubillaga Oñati)

**TIRADA:** 3.300 ale

**LEGE GORDAILUA:** 55-1.038/92

**ISSN:** 1133-021X

elgoiBARRENek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esonen eta iritzien erantzunkizunik.

## ZENBAT BURU



tliabMAY

# Azken metroak

**E**z dirudien arren, bada jada mende laurden luze Erramun Saizarbitoriak frogatu zigunetik zein nekoso eta oinaze kabi izan daitekeen helmugara daraman azken metro gutxi horien -bere horretan ehun metro hain zuzen ere- ibilbidea burutzea.

Hauxe berau gertatzen zaie kirolariei. Txirriindulariak, adibidez, nahiz eta lasterketa bikaina egin, sarritan sprintean erakutsi behar du besteeikiko nagusigoa. Korrikalariaren ekitaldian ere, bukaerak badu zer ikusirik eta, zer esanik ez, mendizalearen ihardunean gailur malkartsua irabazteko ematen diren hondar pausuek.

Eta kirolariekin gertatzen dena gertatzen da hein handi batean gure ikasle sufrituekin, hots, aste betean borobildu behar dutela bederatzir hilabetetako ibilaldia.

Horren kariaz, sasoi honetantxe izan ohi dira hain justu ere, nerbio, kakalarri, burukomin eta abar bukaezina. Gela, eskola, familia Santa Ageda gisako bilakatzen dira duda izpirik gabe. Ikaslearen ezinegona bere inguruan dabilzan guztiengana hedatzen da, berarekin batera etxe berean bizi den orok, aitak zein amak, zein amonak, edota txakurrak berak ere -gaixo


errugabe urrikarriak- azterketa sindromeari ihes egin ezin diolarik.

Hain larrialdi unagarriari itzurtzeko, edo hobeto esan, eramangarriago egiteko, mila dira asmatu diren soluzioak, beno, soluzioak baino, sasisoluzioak, zeren bestela bakarrarekin nahikoa bailitzateke. Zerrenda amaitezina bada ere, hona hemen zenbait exenplu: psikologo gabinetetako behin eta berritoko lasaitze eta autoestima aldiak; belar dendetako tila, kamamila infusioak, edota fosforo, polen, ginseng pilula, kontzentratu eta gailera miraritsuak; gure garaian, ez dakit orain, Ama Birjinari kandelatxoak piztea, egun, aurrerapenen eraginez, botoiari sakatu eta bonbilak piztea bihurtu dena; gauari iruzur egiteko aproposak diren kafe, tabako, anfetamina eta horrelakoen neurritz kanpoko irensketa, eta beste horrenbeste luze bat.

Dena den, urteetan eta urteetan zehar, hamaikatxo buru argi -ustez behintzat- azterketa une hauek jasangarriagoak egiten saiatuagatik, ez da askorik aurreratu. Egoerak lehenengo berean darrai: ikaslea inoiz baino bakarrago, babesik gabeago, ezerezago, orri zuri baten aitzinean. Eta guzti hau, zer frogatzeko, eta nori?

**Myriam Villasante Ibarrola**

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Font  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
ahlizkaria*







KEXAK

"Mintxetan izan berri diren eskolarteko atletismo frogen antolatzaileei nire kexa helarazi nahi diet, herrian eta ikastetxeetan atletismoa suspertzeko ahaleginetan gabiltzanokin ezertarako kontatu ez dutelako".



TXALOA

Irakurle batek deitu digu Trikitilari Eskolakoak txalotu nahi dituela esateko. Berak esan digunez, giro aparta jartzen omen dute hil bukaerako ferixa egunean. Aurrerantzean ere berdin segitzeko esanaz agurtu da.

81112111

"Nolatan ekarri zen Trinitate jaietarako "Cojon Prieto" bezalako talde mozkor eta ganoragabekoa?". "Zenbat kobratu zuten?". Kultur Teknikariak hiru erantzun eman dizkigu: 1- Gazte jendeak hori nahi duelako. 2- Plaza Handia gainezka zegoen. 3- 500.000 pta. ordaindu zitzaien.

# ESKUTITZAK

## Haur erdaldunak eta euskaldunak

**B**ARREN astekariaren 63, zenbakia hartu eta Iehen jaunartzeari buruzko erreportaia irakurtzen hasi nintzen. Erreportaian, letra handiz, honako hau jartze zuen: 'bi urte barru haur euskaldunak eta erdaldunak nahastuta egingo dute jaunartzea'. Letra txikia irakurtzerakoan, berriz, honako hau eransten zitzaion: haur guztiak euskaldunak badira ere, guraso askok ez dakite euskaraz...'

Tarte honetan inork ezer esan-idatzi ez duenez, neuk egitea erabaki dut.

Zertan gelditzen gara? Badago ala ez dago haur erdaldunik Elgoibarren? Zeintzuk dira euskaldunak? Uriarte, Etxaniz, Etxeberria eta gainontzeko euskal abizenak dituzten haurrak? Eta erdaldunak? Martinez, Cuevas, Otero, Fernandez,...?

Zertan oinarritzen gara gaur egun haur euskaldun eta erdaldunak bereizteko? Gurasoen abizen eta jaioterrietan? Guraso erdaldunen seme-alabak erdaldun izatera 'kondenatu' behar al ditugu?

SIADecok, Udalaren eskariz, egin berri duen azterketa soziolinguistikoa zera esaten da: 12 urtez azpiko Elgoibarko haur guztiak ulertzen dutela euskara. Halaber, jaunartze adinean dauden haur guztiak (8-9 urte) euskaldunak direla ere ondorioztatzen da.

Haur erdaldun eta euskaldunen arteko bereizketa honek ezjakintasuna eta en'espetu falta izugarria erakusten duela iruditzen zait. Errespetu falta norekiko?

- Fernandez, Vazquez,... abizenak

eduki, erdaldunak izan eta euren seme-alabak euskaldunak izan daitezen, hauek euskal eredueta matrikulatzen dituzten gurasoekiko.

- Euskal ereduaren aldeko apostua egin duten ikastetxeekiko.

- Euskarazko irakaskuntzaren alde etengabeko lanean diharduten irakasle eta gurasoekiko.

- Eta batez ere, haurrekiko. Guraso erdaldunak dauzkaten haur euskaldunekiko.

Noiz onartu behar dugu Manuel Otero eta Carmen OtaI, Iñaki Garate eta Miren Uriarte bezain euskaldunak direla?

Jende asko ari da lanean Elgoibarren haur guztien hizkuntz berdintasuna lortu nahian. Momentuz bidearen azkenera iritsi ez bagara ere, dexente egin dela iruditzen zait eta euskaldunak/erdaldunak bereizketa egitea etorkizunari atzea ematea dela uste dut. Egungo haurren abizenek duela urte batzuk zorigaitzoko eraztunak betetzen zuten funtzioa bete behar al dute ba?


Bukatzeke, haseran aipatutako titularrari aldaketa txikitxo bat egitea pentsatu dut: 'Bi urte barru guraso euskaldun eta erdaldunak nahastuta egongo dira euren seme-alaba euskaldunen jaurnatzean'.

I.L.

### ZUZENDARITZAREN OHARRA:

Azken boladan izen-abizenik gabeko eskutitzak jaso ditugu. BARRENen argitaratu nahi diren gutunek **izen-abizenak, N.A.N.a eta telefono zenbakia behar dute izan**. Argitaratzerako orduan **inizialak soilik ager daitezke** igorleak hala eskatuko balu. Eskutitzak bidali dituzuenok deitu mesedez BARRENera falta zaizkizuen datuak emateko.

## HARRIGORRIGOKOERRO IABERRI IARRAK





•te honetako erretratua Inazio Gabilondok, "Txiron"ek lagatakoa da. Berak esan digunez erretratua 1967. urtean ateratakoa da San Pedron.

**fls**

"Txiron"ek esan digunez, Finalista Egunean atera omen zuten. Finalista Eguneko ohitura 1957. urtean hasi omen zen Elgoibarren. 50. hamarkadaren bukaeran mendizaletasunak hartu zuen indarra kon-

tutan izanik, Mendi Federazioa "Ehun Mendien Lehiaketa" antolatzen hasi zen.

Ikus dezagun zeintzuk diren erretratuan azaltzen direnak. Ezkerretik hasita, tente: Luciano Gerra "Txano" (t), Maria Teresa Irureta, Inazio Gabilondo eta Rarnon Zabala.

Makurtuta: Jose M. Otaegi, Jesus M. Elizburu, Mila Arano eta Itziar Perez.

## ASESORIA GOA

### AHOLKULARITZA

- . KONTABILITATEA
- . A HOLKULARITZA FISKALA
- . LAN A HOLKULARITZA
- ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
- . MULTINACIONAL ASEGURADORA
- ASEGURUAK

San Bartolome 1 behea. Tel: 74 26 74- 74 02 34. Fax: 74 21 29

### IRAKASLE ESKOLA

**ell**

Magisterio Eskolctk zera jakinarazten du:

**1994-95 ikasturterako aurreinkripzioepea zabalik dagoela.**

Ikastetxe honek, Euskal Herriko Unibertsitateak onartu dizkion espezialitateetatik, honoko houek ezartzeko eskabidea egin du i 994-1995 ikasturteari begira:

- **Haur Hezkuntza**
- **Atzerriko Hizkuntza: Ingeiesa**
- **Hezkuntza Musikala**

#### Informazioa

IRAKASLE **ESKOLA**. Tel: (943) 71 41 57  
20540 **ESKORIATZA** (Gipuzkoa)



# Eskolarteko jokuak

**H**emen dauzkagu eskolarteko jokue- tan Elgoibarko txapeldun geratu diren 12 taldeak, eta atletismo lasterketetan irabazi zuten neska-mutilen taldea. Eskolarteko jokuak bukatu dira alebin eta infantilentzat, benjaminentzat berriz, ekainaren 11 ko astebukaeran amaituko dira. Urrian hasi ziren joku hauek eta Ikastola, Pilar eta Herri Eskolako 3. mailatik 8. mailara bitarteko haur gehienak aritu dira

honela banatuta: benjaminetan 16 talde, alebinetan 58 talde eta infantiletan 43. Eskubaloian, saskibaloian eta areto futbolekoan jokatzeko gain, beste sei kirol izan dituzte aukeran: atletismoa, pilota, xakea, txirrindularitza, mendizaletasuna eta igeriketa. Eskolarteko jokuak guraso, herriko klub, irakasle, ikastetxeetako kirol arduradun eta Udaleko Kirol Zerbitzuaren Ianari esker burutu ahal izan dira.



1  
L  
A  
R

(Alebinak). Areto futboleko Elgoibarko txapeldunak.



I  
K  
A  
S  
T  
R  
O  
L

(Alebinak). Elgoibarko txapeldunak eskubaloian, saskibaloian eta areto futbolekoan. Gipuzkoako txapelketarako sailkatu ziren baina final laurdenetarako heldu ziren.



1  
K  
A  
D  
O  
D  
O  
T  
1

(Alebinak). Txapeldunak eskubaloian eta saskibaloian. Eskubaloiko Gipuzkoako txapelketan final laurdenetan kaleratuak.



1  
K  
A  
I  
N  
T  
E  
R

(Alebinak). Elgoibarko txapeldun ordeak saskibaloian. Gipuzkoako txapelketarako sailkatu dira.



1  
L  
A  
R

(Alebinak). Elgoibarko txapeldun ordeak saskibaloian eta Gipuzkoako txapelketarako sailkatuak.





**Atletismoa. Hauek dira atletismoan irabazle geratu diren neska mutilak. Beraien izenak aipatzea luze joango litzatekeenez, zera bakarrik esango dugu: Daniel Rinoren ardurapean korritu duten haurrek emaitza ezin hobekak izan dituztela urtean zehar, tartean Gipuzkoako txapeldunak ere izan dugularik.**

**I  
K  
A  
S  
X  
E  
R  
O  
X**



**(Infantilak). Elgoibarko txapeldun ordeak eskubaloian. Gipuzkoako txapelketarako sailkatuak.**

**K  
A  
B  
A  
R  
T  
O  
L  
O  
M  
E**



**(Infantilak). Saskibaloiko txapeldunak eta Gipuzkoako txapelketarako sailkatuak.**

**K  
A  
S  
B  
A  
R  
T  
O  
L  
O  
M  
E**



**(Infantilak). Elgoibarko txapeldunak eskubaloian. Gipuzkoako txapelketarako sailkatu dira.**

**K  
A  
A  
R  
T  
A  
B  
E  
Z**



**(Infantilak). Areto futboleko txapeldunak eta Gipuzkoako txapelketarako sailkatuak.**

**K  
A  
L  
A**

133  
11.



**(Infantilak). Eskubaloian eta areto futboleko txapeldun. Eskubaloian Gipuzkoako txapeldun ere badira eta larunbat honetan, hilak 4, Euskadiko txapelketako final laurdenetan parte hartuko dute. Irabaziz gero, iganclean finala jokatuko dute.**

**K  
A  
R  
T  
A  
B  
E  
Z**



**(Infantilak). Elgoibarko txapeldun ordeak areto futboleko. Gipuzkoako txapelketa jokatuko dute.**

**K  
A  
L  
A**



**(Infantilak). Saskibaloiko txapeldunak eta Gipuzkoako txapelketarako sailkatuak.**



# Olaizaga droidegiaren erabilera

**E**skertzekoa da BARREN astekariak eskaintzen didan aukera hau, Olaizaga kiroldegiaren erabilera-  
ren ikerketa eta Elgoibarko herriari azalpen bat emateko aukera, alegia.

Kiroldegiko zerbitzuen egoera aztertzeko ezinbestekoa da berauek ezagutzea. Hiru atal daude:

1- Kiroldegiko instalazioak: igerilekua, frontoia, saunak, UVA izpiak, Squash-a etb.

2- Ikastaroak: Karatea, gimnasia (hilero 110 pertsonatik gora), igeriketa (umeentzat zein nagusientzat), salsa ikastaroa, aquerobie, masaia...

3- Diputazioaren eta Udalaren babespean antolatutako ikastaroak: irailetik maiatzera bitartean Elgoibar, Deba eta Mendaroko 600 umeri 20 egunez igeriketa ikastaro bereziak eskaini zaizkie. Igeriketa eta Karateko Kirol Eskoletan 70 umek kirolarekin lehen kontaktua izaten dute.

4- Herriko gainontzeko elkarteek erabiltzeko prest dago beti Kiroldegia, ekintza horiek ahalik eta baldintzarik onenetan burutu daitezzen gure eskuetan dagoen guztia jartzen dugularik. Horietariko batzuk aipatzearen: Ikastolako urteroko jaialdia, LHiko San Boskoko jaialdia, Nazioarteko Dantza jaialdia, 3. adinekoentzako gimnasia, areto futbolero eta eskubaloiko taldeen entrenamendu eta partiduak, antzerkiak, etb.

Urtean zehar ekintza ugari izaten ditugu Kiroldegian. Batzuek igerilekuan ume ugari dagoela esango dute, eta beharbada arrazoia dute. Baina zer pena egunen batean umeak faltako balira! (Hemendik urte batzuetara ez da igeri egiten ez dakienik izango). Badira ere urtean zehar partidu bat jokatzetik

ez dutenak izango kultur edo kirol arloko ekitaldiren bat dagoelako. Herria bizirik dagoen seinale.

Orokorrean instalazioen zerbitzuak ugariak izan arren, eta benetan diot, kalitate onekoak, kezka batzuk ditugu: toki gutxi muskulazio gelan, lau kale bakarrik igerilekuan, umedadea goiko frontoian etb.

Badakigu gure lana Kiroldegia ahalik eta baldintzarik onenetan edukitzea dela, jendez beterik. Helburu hori lortzeko guk egin dezakegun lanarekin ez da nahikoa. Askotan, toki publikoak ez nolanahi erabiltzeko direla pentsatzen dugu. Ez dago iritzi okerragorik. Erabiltzaileok, gure jokabidea zuzentzen ez badugu, zakarrak bere tokira botatzen, argiak itzaliz, gure ondokoak errespetatuz, ez da guk nahi dugun girorik egongo, ez da etorkizunik egongo.

Gaur egun esan dezakegu, dudarik gabe, Elgoibarko herriak izan ditzakeen kirol arloko kezka gehienak, Olaizaga kiroldegiarekin eta sortu berri den Mintxetako instalazioekin badutela erantzuna.



JULIO ANTON

OLAIZAGA KIROLDEGIKO ZUZENDARIA

## MDEK SACLPIUM

D  
E

4 Wmfau? Xle4,  
1174z.92 Kf:41

## Logopedia Zentroa



Isabel Gil Arrocha

- Hizkuntz arazoak
- Hizketa arazoak
- Ahots arazoak
- irakurtzeko eta idazteko arazoak

Bidebarrieta, 27-B  
Tel. 11 84 71 EIBAR

## Fotero OKINDEGIA OPILDEGIA

San Frantzisko, 4  
Tel. 74 07 35

1111

ELGOIBAR

GRANDALÓ

OIHALA  
eta  
MERZERIA

Errosario 8. Tel:74 35 95

Maria Urizar

ileapaindegi  
mixtoa

Errosario 9-1 ezk.  
Tr 74 44 89 ELGOIBAR

oizmendi

Tel: 74 00 16

TABERNA



# Zer er zazu Kiro|deigh(o zeirbazuaz?



**JUAN ANTONIO MANZIDOR**

31 urte, mekanikaria

Txarrak ez dira baina hobeak izan daitezke. Ni frontoian ibiltzen naiz eta garai batian argixa juten zan. Garbitsasuna ere zaindu biharko zaben.



**BEGOÑA GONZALEZ**

24 urte, administraria

Gimnasiara etortzen naiz eta lehenago igerilekura. Garbitasun aldetik hobetu daitekeela uste dut, baina irakasleen eta monitoreen zerbitzua oso ona da.



**CONCHI BLASCO**

42 urte, etxekoandrea

Nahiko genukeena baino dexente eskasagoa da. Gimnasioa eta aldagelak ez dituzte behar beste garbitzen. Kexatu izan gara, baina alperrik.



**ROSARIO ZUBIAURRE**

50 urte, etxekoandrea

Nik ez daukat kejarik. Piznara etortzen naiz egunero eta oso gustura. Batzuk kejatzen dia garbitasuna dala eta, baina nik ez daukat kejarik.



**KARMELO ALTZIBAR**

60 urte, j ubilatua

Pistinako ura bastante ondo dabil oingo tenporadan, lehen hotza egoten zan. Baina beste gauza asko hobetu beharko zian, garbitasuna batez ere.



**ERNESTO SANCHEZ**

20 urte, langabetua

Areto futbolean entrenatzera etortzen naiz eta kan txan itukinak daude. Aldagelak urez beteta egoten dira eta igerilekua lehen nahiko zikina zegoen.

**MAHAINGURUA**

**PARTAIDEAK**

Maria Bergara  
Aitor Gurrutxaga  
Maider Lizundia  
Ekaitz Baskaran  
Patxi Zabaleta  
Virginia Senosiain

**MODERATZAILEA**

Aitor Zabaleta

"Larunbat arratsaldeak  
Elgoibarren"

Ekoinak 9, <sup>o</sup>steguno  
Arrotsoldeko eton.  
ICIANUR 5<sup>014</sup>





## Egunkariaren kapital gehiketa Elgoibarren

Euskaldunon Egunkariak Euskal Herrian 100 milioitako kapital anpliazioari ekin zion duela hilabete inguru. Diru bilketa honen helburua Egunkariak beharrezko dituen zenbait hobekuntza burutzea da, hala nola, egoitza berria eskuratu, astelehenetan kaleratu, edizio lokalak egin eta errotatiba propioa eskuratzea. Hau dela eta, Elgoibarren hasi dira akzioen eskaintzak egiten zenbait erakunde, eskola, enpresa eta partikularri, herri honi dagokion milioi bateko kopurua lortzeko asmoz.

Honela, akzioaren baten jabe izan nahiko lukeenak edota informazio gehiago jaso, 74 43 98 telefonora dei dezake.

## 11 Uda 94' kanpaina

Gipuzkoako Foru Aldundiak 18 eta 29 urte bitarteko gazteentzako udarako eskaintza kaleratu du. Tartean, hizkuntz egonaldiak, kirol abenturak, trabesiak eta ekintza anitzeko egonaldiak egiteko aukera izango da. Bi txanda izango dira, uztailean bata eta abuztuan bestea. Izen emateak Udaleko Kultur Etxean jasoko dira, bertara joanaz edota 74 21 58ra deituz. Plazak mugatuak izango direnez, lehentasuna izango du lehen bait lehen deitzen duenak.

## 23 paper kontenedore herrlan



Dagoeneko baditugu Elgoibarraren papera eta kartoia batzeko kontenedoreak. Deba Beheko Mankomunitateak paper eta kartoiaren birziklaiarako programa pilotu baterako aukeratu zuen Elgoibar, eta orain papera eta kartoiarentzako 23 kontenedore jarri dituzte. Metalzkoak izango dira, eta urdinak, zaborraren kontenedore berdeen aldamenean. Bildutako papera, Zornotzan sailkatu eta gero, Zaragozako edo Nafarroako papertegietara eramango da. Hasteko, kontenedoreen kokapena behin behinekoa izango da, eta behin emaitzak esku artean, behin betirako kokapena erabakiko da. Etxebizitza bakoitzeko atarian, planu bat jarri-

ko da ondoko informazioarekin: gertuen dagoen kontenedorea non dagoen, kontenedoreak nola erabili behar diren erakutsiko da eta telefono zenbaki bat (70 07 99) eman go da edozein zalantza, kexa edo salaketa egiteko.

Mankomunitateko gerentea den Jose Francisco Muniozgurenak Elgoibarko biztanleriaren sentsibilizazioa handia dela aipatu zuen, apirilean egindako inkestaren arabera 7096ak kontenedoreen beharra dagoela esaten zuen eta. Mankomunitateko arduradunek, esfortzu berezia egiteko eskatu nahi diete herriko dendariei, beralen laguntza beharrezkoa izango baita programa pilotu honek arrakasta izan dezan.



## Pilar ikastetxeko haur eta irakasleek

maiatzeko lore eskaintza egin zioten Amabirjinari, urteroko ohitura bati jarraiki. Joan den ostiralean, Pilar ikastetxetik San Bartolome elizarainoko bidea egin eta gero, loreak jarri eta ikasleek egindako bertsoak kantatu zizkieten Amabirjinaren irudiari. Lore eskaintza hau urtero egiten omen dute Pilar ikastetxekoek, maiatza Amabirjinaren ornenezko hlla dela gogoratuz.





## Ehiza Txakurren Trinitateko txapelketan

Gipuzkoatik, Arabatik, Bizkatik eta Frantzia aldetik etorritako 38 partehartzaile izan ziren. Txapelketaren irabazlea Adan izeneko pointer txakurra izan zen, bigarren postua Le Forestier frantsesaren Lai txakurrak eskuratu zuen eta hirugarrena seter arrazako Fidon izeneko txakurrak. Herriko partaideen artean, Manu Fernandez jabetzako txakurra izan zen lehena. Argazkian Fernandez, agintarien eskutik saria jasotzen.



**Trinitate jaietan** animaziorik ez da falta izan. Inoiz baino jende gehiago eta giro izugarria egon dela diote "adituek". Aurten, aspaldiko partez elkarteen arteko gastronomi lehiaketa ospatu da. Partaidetza kontutan hartzekoa izan da eta kuriositate handia sortu zuen herritarren artean, Plaza handian inprobisatutako sukaldeetan marmitakoa prestatzen jarduteak. Irabazlea "La Union" elkarteko Patxi Astigarraga eta KartneIo Lasuenek prestatutako marmitakoa izan zen. Bigarren, "Karakate" elkarteko Manu Atorrasagasti eta Felix Arregi geratu ziren eta hirugarren, Kalamuako J.M. Agirrebeña eta Esteban Egia. Bukaeran Pedro Gallastegiren omenez, oroigarri eta lore sorta eman zitzaion haren alargunari. Honetaz gain, kirol froga ugari, erraldoi eta buruhandiak, tanborrada, Eibarko Musika Banda, "Cojon Prieto y Los Huajalotes" musika taldea eta "Koska" herrikideak ekinean ikusteko aukera izan da.

## OHoko haurren mendi irteera Kalamuara

"Euskaraz Bizi" proiektuan sartuta dauden bost Ikastoletako (Lasarte, Errenderiko Langaitz, Donostiako Herri Ametsa, Eibar eta Elgoibarko Ikastolak) haur, irakasle eta gurasoek Usartzara, Kalamuara eta Arratera mendi irteera egin zuten joan den 21ean, larunbata. Kalamuako tontorrean, "Argitxo"ren omenez oroigarria jarri zuten dantza eta bertsoen artean. Handik, Arratera abiatu ziren jai giroan. Bazkal ondoren, jolas eta musika lagun zutelarik arratsalde polita pasa zuten.

## HBren erantzuna Gillermo Garateri

HBk prentsaurrekoa eman zuen joan den astean Guillermo Garatek, Kultura presidenteak, orain egun batzuk idatzi zuen eskutitzari aurre egiteko. Idatzian, Garatek Jabi Agirre salatzen zuen, azken honek Herriko Antzokiaren gestiorako Ongarri proposatzea, talde honetan zinegotziaren anaia bat egoteagatik dela esanez. Herri Batasunak jakin arazi nahi du batetik, Jabi Agirrek ez dituela bere interesak defendatzen, "aitzitik, Ongarri HBk, alderdi bezala proposatzen du, eta ez Jabik bere aldetik". Bestetik, "125 miloiko gastua suposatu du Herriko Antzokia egokitzeak", horregatik, "gure ardura bakarra, Antzokia herritarrei behar bezalako zerbitzua eskainiko dion taldearen esku uztea da". Jorge Hernandoren hitzetan, "Ongarrik ongi erakutsi du gai dela gestio egoki bat aurrera eramateko, hor daukagu aire libreko zinea". HB Ongarriri zortzi hilabeteko epea ematearen aldekoa da, "denbora horretan Antzokiaren funtzionamendua egokia bada, jarrai dezatela, bestela ez". Hala ere, dagoeneko Udaletxeak hartu du erabakia Herriko Antzokiaren gestioa Kultura sailaren eta pelikula banatzaile baten bidez eramateko.



## Juan Vlari Vendizabal.

# "Euskara ikasten ari direnek sari bat merezi dute"

Pertsona gutxik lortzen dute atsegin duten gauza batean lan egitea eta, egia esan, Juan Marik ez digu aitortu bera horietako bat denik. Baina, nabari zaio maite duenaren alde


uzten dituela bere neke guztiak, euskararen alde. Horrela, Juan Marik bost urte daramatza Donostian, AEK-ko bulego zentrolean arduradun bezala, koordinatze lanetan.

### - Zein metodologi erabiltzeagatik bereizten da AEK?

- AEKk betidanik izan du garbi gauza bat eta zera da, guk jendeari euskara irakasten diogu gero euskaldunak izateko. Guzti hau praktikan gauzatu behar da. Helburu horrekin, saiatu gara metodologia apropos bat erabiltzen adibidez, kalean hitzegiten den euskara hurbilduz ikasleei. Nere ustez lortu dugu jendeak AEKren erreferentzia bat izatea, hau da, euskaraz mintzatzeko eta soltatzeko lan egiten dugula.

### - Sortu zenetik eta Gipuzkoan ezarri zenetik, zein izan da bilakaera?

Oinarria gau eskoletan dago, orain 25 urte. Orduan boluntarioak zuden, inolako prestakuntzarik gabe euskara irakasten zutenak. 70. hamarkada bukaeran euskalduntzearen "boom" a izan zen. Mementu hartan konturatu ginen metodologi zabalago bat egin behar zela. Gerora, 1982-83 urteak oso garrantzitsuak izan dira, instituzionalizatze prozesua eman zen eta. Ezadostasuna egon zen eta



"Akordio puntu bat lortu dugu eta aurten, akordioa sinatu ondoren, dirulaguntza jasoko dugu."

HABEk bere bidea hartu zuen eta guk geurea. Ondoren, erakundetze prozesua sendotzen aritu ginen. Herri guztietan zerbitzu minimo batzuk egotea behar zen, zentru ezberdinak orekatu behar ziren, nolabait. Hortan 80ko hamarkadako urte asko joan zitzaizkigun. Arazoa, guzti hau aurrera eramateko bitartekoa lortzea izan da.

### - Euskararen aldeko jai edo festetara joaten den

**jendetza ikusirik, uste al duzu euskara dela euskaldun guztiok batu gaitzakeen gauza bakarra?**

Bai, bai, ados nago hortan.

### - Nolakoak dira mementu honetan AEK eta instituzioen arteko harremanak?

- Mementuan akordio puntu bat lortu dugu eta aurten, akordioa sinatu ondoren, dirulaguntza jasoko dugu. Elkarrizketa

prozesua ere hasiko dugu eta hori oso inportantea da.

### - Nahikoa euskara hitzegiten al dugu Elgoibarren?

Beharko litzatekeena baino gutxiago. Jende askok badaki baina ez da erabiltzen. Zentzu honetan, niretzako sari bat merezi dute lanetik irten eta euskaltegira doazenak egunero bi orduz. Egiten duten ahalegina ez dago errekonpentsaturik ez baitute aurkitzen non hitzegin ez eta hizkuntza egoera normal batean bizitzea ere.

### - Epe motzera, zein proiektutan zaudete lanean?

- Lehenengo, eta oso inportantea dena gainera, aipatu akordioa sinatzea dago. Gero, behar asko daude, adibidez, irakasleak hobeto prestatzea, ikasleei aukera gehiago eman ikasitakoa erabiltzeko... Orain arte, bigarren mailako sektorea izan da eta demostratua dago umeei irakastea ez dela nahikoa, helduei begira jarri behar garela eta beraingana luzatu ahaleginak. Beste aldetik, Iparraldea ere oso egoera larrian dago.

MIRYAM ALDAZABAL



## ---IFER.ISXLTSZN



**B**enetan xelebrea izan zen maiatzeko feriako giroa. Behi eta txahalak batetik, auto-txoak bestetik, belarra mozteko makinaria eta tresnak han, tio-biboak inguruan. Guztia baserri munduari baino gehiago kale zuloko giroari dagokion musika modernoz animaturik. Trinitate jaiak ospatzen ziren, bete betean. Eta horren arabera, feriak ere izan zuen ohizkoa ez den ezaguri diferenterik. Askotan gertatuko ez den arren, joan den zapatuan baserritarrek eta kaletarrek bat egin zuten gune berdinean. Xelebrea izan zen ganadu saltzalie batek erosle posible baten aurrean behiaren ahoa nola irekitzen zuen ikus-

tea, hortzak erakusteko, edota animalia plazan zehar nola pasiatzen zuen, bere itxura osotasunean antzemateko. Kaletar askorentzat ikuskizun bitxi bat izango zen, dudarik gabe.

Argazkian ikusten dena edozein herritako ferietan hara hona ibiltzen diren "Ferreteria ambulante" horietako bat da. Zintzarriak, sokak, iltzeak, segak, abarka eta artilezko galtzerdiak, mailuak... Baserriko lanetarako beharrezkoa den tresneria guztia aurki daiteke postu horietan. Saltzaile batek aitortu zigunez "guk aspaldian jaso dugun nobedade bakarra krisia izan da, eta horrek ere berritik baino gehiago du zaharretik".



**/1441 0/419401~**

**ZUMARRAGATARRA**

• **Zenbat urte?** - Bizi guztin, zeatik nere aita ere ibili zan leheno.

• **Zer saltzen duzue?** - Ferreteria ambulanteak gera gu, baina baserriko produktuetan espezializatuak.

• **Gehien zer saltzen da?**

Danetik, sega oaindiok ere saltzen da, makinek asko kendu dioten arren.

• **Gelditzen al da abarka eta artilezko galtzerdiekin dabilen baserritarrik?** - Bai bai, asko. Jendea ohituta dao horrekin eta, halere galtzerdi normalak gehio saltzen dia.

• **Txintzarriek zein berezitasun izaten dituzte?** - Klase asko daude, neurri eta zarata diferentekuak. Ardiantzako txiki eta finagoa, ta, por ejemplo, behientzako haundigo ta motelago.

• **Xaguentzat tranpak ere badituzu.** - Bai, horiek ez die akabauko sekula.

• **Zer prezio inguruko gauzak dituzu?** - Gauza merkenak bost bat duro eta garestienak, ardieri ilea mozteko tresnak, 12.000 duro.

• **Gaurkoan ekarri al duzu nobedaderik?** - Nobedadeak makinaria asuntuan; hemen ez dia berririk sortzen.



## Nekazal inbertsiotarako laguntza plana



**J**oan zen urteko urriaren 31n Baserriarrentzako Laguntza Planaren dirulaguntza eskariak egiteko epea itxi zen.

Sei hilabeteko etenaren ondoren dirulaguntza hauek eskatzeko garaia zabaldu berri da.

1994ko maiatzaren 4an argitaratutako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Baserrirentzako Laguntza Plana arautuko duen Foru Dekretua xedatzen da (martxoaren 29ko 34/1994).

Aipaturiko Planak, baserrian egin behar diren inbertsiotarako dirulaguntza zuzenak eta interes puntuetan lagundutako maileguak aurrikusten ditu.

Baserrirentzako laguntza hauek jaso ahal izateko, bete beharreko baldintzen artean garrantzitsuenak honako hiru hauek dira:

1.- Baserrian, nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzatik lortutako etekin gordina urteko 750.000 pztá baino gehiagokoa izatea.

2.- Baserrian dagoen aktibitate maila dela eta, pertsona baten egun osoko iharduera arazoitua egotea.

3.- Baserriarrak, orohar, hirurogei urtetik beherakoak izatea.

Baldintza hauek betez gero badago laguntza jasotzerik baina, hala ere, baserriarrak jaso dezakeen laguntza maila ezberdina da baserrian bakarrik arituz gero edo baserrian eta kanpoan. Bietan aritzen diren horiek, kanpoko irabaziak zenbat eta haundiagoak izan, orduan eta laguntza gutxiago jasoko lukete.

Aipatu, baita ere, Foru Aldundiak, Gipuzkoa-Donostia Kutxa eta Euskadiko Kutzarekin sinatu berri dituen hitzarmenetan %9.5eko interes preferentziala lortu duela. Foru Aldundiko Nekazaritza eta Naturgune Sailak ematen dituen interes puntuen laguntzak, 9.5eko interes puntu hori 5 edo 2 puntutan biguntzeko laguntzak dira.

Edozein eratará ere, eta gai mamitsua izanik, argibide eske ostegun goizetan Elgoibar-ko Foru Aldundiko Garapen Zerbitzuko bulegora jotzea gomendatzen da (azokako 2. solairuan).

**Karmen Korta**

**Nekazaritza Bulegoko Teknikaria**




**Jose Maria Andonegi  
bo urte, Errezabal (Mendaro)**

Teilatua arreglau nabanian, laguntasunak ein ziazan, oin dala zazpi bat urte edo. Holakuak egon ezkeró errezutxuau eitxen dia gauzak.

**Pedro M. Arrillaga  
urte, Arane (San Pedro)**

Nik sekula ez dot dirulaguntzarik jaso. Oin arte holako asuntuetan ibili dana aitxa izan da, karretera konpontzia dala eta. Tokau ezkeró nik neuk ere eskatuko neuke.



**Migel Juaristi, 32 urte  
Lizundia Txabola (San Antolin)**

Bai, obra arloetan zerbait eta baita makinentzako dirulaguntza ere. Ikuilu berria egin nun. Jasotako diruarekin nahikoa konforme geratu nintzan.



**Domingo Arriola  
54 urte, Akei (San Pedro)**

Ganadu aldetikan bai. Diru hori nahikua-nahikua ez da izaten, danok ibiltzen gera horren atzetik eta danok gehio nahi deu. Hala ere, hutsa baino hobe da zerbait.



**Inazio Ansola  
73 urte, Olazarra (San Migel)**

Bai. Mendan plantauta egoten dian pinu txikieri zakarrak eta kentzen ibiltzen gera. Guk bakarrik ezin izaten dou eta jornaleruak pagatzeko erabiltzen dou dirua.





# SAN PEDRO AUZOA



SanPedro auzoka eliza aurrez aurre.

## JAKITEKOAK

■ **BASERRIAK:** Aitzbizkar Bekoa, Aitzbizkar Goikoa, Akey, Aranburu, Arane, Armazio, Armueta, Arraitzaga, Aubixa, Egi, Eguen Nagusi, Eguen Txiki, Galburusoro, Goikoetxe, Ipintza, Irunagabe, Irunaberri, frunaga Txiki, Juanategi, Kortasoro, Legarda, Osoro Nagusi, Osoro Txiki, Sagarzurieta, San Pedro, Usatorre, Urkieta, Urkiola, Zubizarreta.

Ei **JAIK:** S. Pedroak (ekainak 30).

tuen okela erretzeko su haiek, eta tragoxka bat hartzeko taberna ere badago. Ongi hornituriko auzoa da, dudarik gabe. Jaiak ekainaren 28 aldera ospatzen dira, San Pedroak, noski. Aurtengoan bertso afari bat izango da, Elgoibarko Izarrarekin batera antolatu dutena eta, auzo gehienetan ohitura denez, erromeriarik ere ez du inork faltan igarriko. Uztailaren 3an, berriz, idi-probak zaletu guztientzat.

**M**artxoan arkume eta gaztatu jana, apirilean uda-berriko eguzkiaren lehen izpiak, maiatzean jaunartzeak, ekainean jaiak, uztailean oporren hurbiltasuna, abuztuan oporrak, irailean udazkena, urrian perretxi-koak, azaroan Aubixara, abenduan, urtarriean edo otsailean ere

makina bat aitzakia aurkitu ditza-kegu San Pedroko parajeetara hurbiltzeko. Bertan bada pilota partidu bat jokatzeko frontoia, bolo partidu batean aritzeko tokia, ume-entzat jolastokia, edo zuhaitz arteko kerizpean bazkaltzeko mahaiak, orain suak ere berriz jartzekotan dira, garai batean ezagutu geni-

## 1ZUZOETZIKO ALKATEEKIN BERBETAN

**Jabier Osoro :**

### "Frontoian ezker pareta jartzeko asmua badao"

eta ni kalia ibiltzen naitzenez eta Udaletxetik gertu ba... Baina lau urte ingo dixut eta bale.

**Zerk eman dizu lau urte hauetan burukomin gehien?**

- Elizako obren asuntuak, badakizu zer pasatzen dan, diru eskabidia egoten dan guztietan, beti atzera, dana atzera.

**- Igandero San Pedroro joaten direnei buruz zer diote auzokideek?**

Ezer ez, ohitxu gera eta. Gehixen kejatzen diazenak kalekuak dira, Eibarko eta Ermuko jendia etortzen dalako asko, kanpoko asko.

**- Zergatik horrenbeste**

**jende?**

- Parajia bera ere oso ona da eta umiekin ibiltzeko autuekin eta arazorik batere ez da egoten, ez da kotxerik ibiltzen eta hori demaseko trankilidadia da jendiantzat. Gero pasiadia eixia nahi dabana ere badaka Kalamua aldera eta, bide politxa.

**- Frontoia ez al dago aldrebes?**

- In zebe garaixan esan zebe ezker pareta ipini ezker elizian estrukturia galdu itxen zala edo, oin badau asmua frontisa ipintzeko harunzkako partian eta ezker paretakin, Gero, proba-plazia berrizteko asmua ere badao.

**- Zure esku balego, zer egingo zenuke auzoan?**

- Faltarik haundixena daona bide asuntua da errepidia konpontzia eta meioratzia. Gero batzuek esaten debe probatokia, bolatokia eta frontoia danak toki berdian ipintzia; hori bildurgarria izango zan. Baina, hortako ere dirua bihar.

**Ohitxura berezirik?**

Lehen egoten zan. Azkue Ansola pentsuzaliak San Pedroro eruaten zaban pentsua eta haretxek afarixa ematen ziu baserritarrei. Baina haurra ere amaitxu zan eta ostian ez da ezer in, nik dakitxela behintzat.



**Ofizioz udaltzaina.**

- Lehen Udaletxeko mataderuan biharra itxen genduan guk, gero haura itxi zabenian udaltzain sartu ginan.

**- Afizioz, berriz, bolo-jokalaria.**

Bai, bai, oso gustuko afizioa gainera.

**Eta alkate izate hori?**

Neure boondatez ez baina inork ez zaban nahi



# "Baserrixan neu naiz jabe eta morroi"

**E**z dira ez, gehiegi izango gaur egun baserriko lanetik bizi direnak. Angel Loiola dugu horietako bat, aita eta aitxixak egin bezala, familiakoa den tradizioa jarraituz. San Migel auzoan kokatzen den Sagarraga baserrian jaio zen, bertan hazi eta hantxe ditu bizilekua eta lantokia ere. Esnetara dedikatzen da. 25 behi izanik, eguneko 250 litro produzitzen ditu.

**Nola lortzen duzue baserriko bizitzea?**

Nahiko juxtu baina gustau ezkerro baserri txiki ere bizi leike. Lan asko einda. Gaur egunian baserriak ere espezializaziva eskatzen dau, bertatik bizitzia nahi badozu gauza batera dedikatu bihar zera, baratzeria edo esnetara edo... denetara itxerik ez daukazu.

**Zu zertara dedikatzen zara?**

Esnetara. 28 behi dauzkat eta zentraiera eruateko ateratzen det esnia, kalerako gutxi. Instalaziva dakat egin da, "ordeño directo" deitzen dana. Behixari ateratako esnia tubotikan direktamente juten da tankera. Garbitxasun haundiko teknikia da, esnerikan ez da ikutzen.

**Behiek ez al dute nahiago eskuz jeistea?**

Ganaua makinara ohi-tzen bada ez du nahi izaten eskua, ze makinia beti da berdina eta eskua ez. Zeu nekutzen bazera ontxe gehi-

xo tiratuko diozu eta ointxe makalo, makiniak beti berdin.

- **DEBEMENeko lehendakaria ere bazara.**


Bai, baina nere figura sinbolikua da gehixenbat. DEBEMEN sortu zan Diputaziotik Udaletxetara ailegatzetan dan dirulaguntzia behar dan bezela banatzeko. Lehen askotan diru hori baserri txarrei banatu biharrikan batek daki zertarako erabiltzen zan.

- **Igartzen al da baserriko bueltarik?**

Ondiok ez. Baserriak gustatzen ez bajatzu lanerako txarra da, sentidu in bihizu, bestela... Tailerrian ostirala ailegatzetan da, isten dozu eta astelenerarte ez daukazu biharrik. Baserrikan goizero jaiki bihar zera, ez dago oporrik. Neri igandia gustatzen jata eta egun horretan ahal dan gitxien itxen dot.

- **Bizimodu lotua, beraz.**

Bai, baina bere alde



onak ere baditxu, asko. Baserrikan neu naiz jabe eta neu rnorroi. Nere airera ibiltzen naiz, ez daukat mugarik ez inor gainetik. Gaur egingo ditzut 17 ordu lan eta bixar ikusten bot ez dauala egualdi ona, lau ingo ditzut. Baserriko askatasuna beste inun ez dau. Lanakin lotuta egon arren, oso libre zaude.

- **Eguraldia asmatzen ikasiko zenuen, ez?**

Gehixen ganaduak jakitzen dau, horrek telediari-xuak baino hobeto asmatzen dabe. Esangoizut kasu bat: juntzan astian behixak kanpuan zabizen eta ordu normalean ez zanian etorri zian

ate ondora. Atzera bialdu nitxun zelaiara eta berriz ere etorri zian. Bueno ba atia zabaldu niuen eta ikuilura etorri biharrikan erre kondora jun zian. Handik ordu erdira kriston zaparradia hasi zan. Mendira bazuaz eta ardixa o bihorra ikusten bozu mendixan gora juten, egon trankil, ez dau euririk egingo. Beherra badatoz, argi!

**Zuena zergatik ote da Sagarraga?**

Ez dakit. Sagastixak dau de, oin, sagarrak daudelako ete dakan Sagarraga izena baserrikan, edo Sagarraga izenagatik dauden Sagarrak...

## TIPULINA

- **SORRERA:** Asian du jatorria. Egipzietan ezaugarri sendagarri eta magikoak zituela sinisten zuten. Tonikoa, diuretikoa, erreumaren aurkakoa eta afrodisiakoa da.
- **FAMILIA:** *Liliaceae*.
- **IZEN ZIENTIFIKOA:** *Allium cepa h.*
- **KLIMA:** Epel eta hezeak.
- **ZOLUA:** Klima mota askotan hazten

da, halere, nahiago izaten du giro freskua haseran eta beroagoak bulboak eratzean.

- **EREINTZA:** Otsaila eta martxoan egiten da lehenengo ereintza, gero apirilean eta maiatzean errepikatuz.
- **LABORANTZA ELKARKIDEAK:** Erremoiatxa, marrubia, letxuga, toma-tea...





**Amagoia Clerigt.da**  
**Bideo Klub-ekoa**



- Bideorik ba al duzue etxean?  
Bai.
- Grabatzeko ala pelikulak ikusteko? Pelikulak ikusteko gehienbat.
- Jaso duzuen azken nobedadea? Van Dameren "Blanco humano".
- Gustatu izan zaizun pelikula bat? **I** "El aceite de la vida".
- Negarrarazi zaituen bat? **III** "El aceite de la vida" k.
- Bereziki inpaktatu zaituen heldurrezko filmerik? Guztiekin beldurtzen naiz.
- Gehien atsegin duzun generoa? Komikoa edo suspensekoa.
- Komikorik onena? **I** Gaur egun Tom Hanks.
- Birritan ikusi duzun pelikularik? "Memorias de Africa" adibidez, lehenengo aldiz ikustean ihes egiten duten detaileak berreskuratzeko.
- Zinea ala telebista? **I** Zinea.
- Sekula irten al zara zinetik pelikula amaitu gabe?
- III** Bai, baina ez dut gogoratzen zein zen, hain zen txarra!
- Zein da jendeari gehien gustatzen zaion generoa? **i** Akzioa, dudarik gabe.
- Eta pornoa? **I** Bai, badago jendea pornoen bila etortzen dena, gizonaok batez ere.
- Ez al dira kortatzen? **INi** nagoenean, aita edo Iehengusuarekin baino gehiago.
- Telebistan gehien gorroto duzun programa? **I** Nieves Herrerorena.
- Eta gustuko duzun aurkezle bat? **I** Jesus Hermida.
- Gauzez pelikula bat ala liburu bat? **I** Liburu bat irakurtzea nahiago dut.
- Argazki bat ala bideo zinta bat? **I** Argazki bat nahiago dut oroigarri bezala.
- Ba al dakizu nork asmatu zuen zinea? **I** Ez, idearik ere ez.
- Euskal zinemagintzari dagokionean?  
Bideoan ez dago apenas ezer, ez eskaintza ez eta eskaera aldetik ere.
- Pelikulletan zein da atsegin duzun amaiera?  
Ondo bukatzea nahiago dut, baina normalean ahaztu egiten zaizkit amaierak.

DOINUA: Triste bizi naiz eta.

Kantatzen nago hemen  
Ama Birjinari  
orain artean ez naiz  
izan bertsolari  
baina saiatuko naiz  
ari eta ari  
lau zortziko kantatzen  
gure Mariari .

Amarik ederrena  
da gure Maria  
jartzen die denei  
bihotza handia  
barruko maitasuna  
du izugarria  
horregatik bera da  
hain ikusgarria.

Dontzeila txit garbia  
da Ama Birjina  
Jose gizonarekin  
ezkondu omen zena  
zure hilabetea  
da mai atzarena  
ta eskaintzen dizugu  
lore politena.



ESHER AJUBITA

**- Ynazio t.W. sevaaff c/f(u5~Oitt -**

Solfeo, Koral, instrumentu eta Dantza matrikulak zabalik daude  
Ekainaren 6tik 17ra. Plaza Agirre 3 - 1. (ordutegia: 5-7)

11.000 - 1111 - AP

EPP-ITR21-1519ITM-ArdmPr rd. r Fmm II-FII.J. FII111--W PJ.F MF-EIE EIEIIIfarigartar119 II-2.2 WtAPrid. PrLLUHS. crOPtratl. epnPC Pd-111-1MarardP12-9



# Herriko Antzokia igandean lauguraJuko da

kainak 5, igandea, eguerdiko 12,30etan. Azkenean, zehaztua dago Herriko Antzokia inauguratuko den data, zorioneko data askoren ustez. Urtebete iraun dute egokitze obrek eta nahikoa atzerapen izan eta gero, haserako aurrekontuak ere gorakada batzuek jasan ondoren, badirudi Elgoibarren izango dugula aurreran-tzean zinea, antzerkia edo bestelako ekintzak ikusi ahal izateko zerbitzu minimo bat.

Haritz Dantza Taldeak egingo die harrera igandean Maria Jesus Aranbururi, Kultura Diputatuak, Garbiñe Egibarri, Kulturako zuzendaria bai eta Elgoibarko Udal Korporazioari ere. Udal Txistulari bandaren eta Haritz taldeko dantzarien eskutik emango den aurrekuaren ondoren, Udal Musika Bandaren kontzertua izango da. Inaugurazioari bukaera emateko laburmetraia bat eskainiko da.

Zine emanaldiak ez dira irailera arte hasiko. Izan ere, garai hau nahikoa motela omen da pelikulei dago-kionean eta, gainera, uztailean aire libreko zinea ere hasiko da. Halere,



!!! E Ezin dotoreago jarri dute Herriko Antzokia.

antzerki, hitzaldi eta bestelako ekintza diferentek izango dute lekurik ekainean hasita.

Astean zehar egunero egongo da zinea, asteazkena ezik. Haurrentzako pelikula bereziaz gain, antzerki eta txotxongilo taldeak ere ekarriko dira. Oraindik konfirmatua ez badago ere, asmoa ostirala zine-klubaren eguna izatea da, Ongarriren esku utziko dena. Zinea ikusteko sarrera 450 pezetako izango da. Asteartean, ikus-

learen egunean, 350 ptako sarrera berezia jarriko da.

Bukatzeko, gogoratu obrek iraun duten epe honetan eman diren egokitzeen artean, besteak beste, antzokiaren insonorizazioa, aklimatazio sistema berria, elbarrituentzako sarrera eta irteera bereziak eta eserleku kopuruaren gehitzea daudela. Honela, gaur egun 400 bat pertsonarentzako kabida dago Herriko Antzokian.



● **IZENA:** Onintza Aranburu.

**ADINA:** 22 urte.


● **LANPOSTUA:** IMiko monitorea.

**FUNTZIOA:** Jendeari egin behar duenaren arabera zein ordenadore erabili dezakeen esatea, dauzkaten dudak azaldu, ezagutzen ez dituzten programak irakatsi...

**ANOIZTIK LAN POSTUAN:** 1993tik.

● **LANAREN ALDE ONA:** Nik egin ditudan ikasketekin lotuta dagoen lana da, gustuko dudana gainera.

● **ALDE TXARRA:** Informatikan egunero mila programa berri irteten dira eta jende asko etortzen da guzti horiek ditugulakoan. Logikoki, ezin ditugu denak eduki eta batzuetan dezezionatu egiten dira.



**CRISTALERIA  
ELGOIBARRESA C. B.**

%444,144.6, **M.U4WI.C64,**

**.11,0«..€4\$4144,**

41,a4,4,2'44,44.

Urasandi 12 behea  
Tel-Fax: 74 04 89

**BEVZOKIA**

**JATETXEA  
ETA  
TABERNA**

[r.rlijcjjr0Z115.tr](http://r.rlijcjjr0Z115.tr) 74 03 21

**ELENA**

**ileapaindegia**

**Depilazio Elektrikoa**

San Franzisko 49-1 tel. 74 11 89



## Loffirrtzo ermita

Elizan aurkitu eta ikertzen ari diren marga zaharrenaren dataren arabera, ermita erdi aroan eraiki zuten ermuarandarrek eta "Villamayor de Markina" (Eigoibar) hiribildua sortu aurretikoa izan liteke.

3 Ekonomi aldetik baserritarrak autoaskiak izaten ahalegintzen ziren. Kontuan izan behar da, gainera, kalea gaur egun baino askoz urrutiago geratzen zela eta bertara iristeko modua bakarra oinez joatea zeia. Kaleko eta baserriko munduen arteko erlazioa batez ere, azoka eta ferietan ematen zen.

Plazaren eta ermitaren inguruan garatu zen eta garatzen da auzotar hauen bizitza sozialaren zati garrantzitsu bat. Garai hartako sinismen eta iharc:luera edijiosoak bizitza sozialean ikaragarritzko eragina zuen. Honela, kristou ospakizunetan parte hartzean ematen zen gizabanakoaren integrazioa.

Sallobentearrek igandero ospatu izan dute meza, hasi XVII mendearen erdialdean eta gaur egun arte. Eta ia zurrta da aurretik ere ematen zirela.

3 Urtean zehar bost jai erlijioso berezi

**zituzten:maiatzaren** Gurutze Santuko meza, iraileko Gurutze Santua, San Esteban, Andra Mariaren **bisitaldia** eta San Lorentzo eguna.

E Maiatzeko Gurutze Santuaren egunean, **prozesioan** letaniak abestuz Muskurubwko gurutzeak bedeinkatzen ziren.

CI XX. mende haseron jai egunetan **bi** meza izatea eskatu zuten auzokideek. Udalari eskatu zioten Elizbarrutiko apezpikuarengandik mesedez baimena lortzeko. 1904. urtean **batzorde** bat joan zen Gasteizera eskakizun honekin.

O Andra Mariaren Bisitaldia 1735. urtean Mendiko Andra Maria izendatu zen eta 1869tik aurrera Andra Mariaren "presentazioa".

**Ospakizun** erlijioso guztien artean San Lorentzo da bereziena. Bezperan hasten zen bezperak abestuz eta jai eguna girotuz. Hurrengo egunean meza nagusia izaten zen bai eta prozesioa ere. Kanpotik ospe handiko sermolari bat ekartzen zuten, San Lorentzoren bizitza goratzen zuelarik.

PELLO ARRIETA

## Silvino Gabilondo Elorza (1903-1978)



Eibarren baskulari lanetan jardun zuen Gerra Zibilera arte. Zamudiora alde egin behar izan zuen eta hango "La Esperanza" fabrikari lan egin zuen. Behin Elgoibarren, forjetan eta Sigma lantegian aritu zen.

' C.D. Elgoibar, Tolosa F.C. eta S. D. Alaves-eko jokalaria izan zen, eskuin hegaleko aurrelaria.

Pilotaria zen, baina laga behar izan zuen futbol profesionalean aritzeko.

Oso musikazalea, atabala jotzen zuen, bere lagun Patxiko Etxeberriarekin. Urteetan zehar, Mendaroko eta Altxolako jaietan jo zuten eta Elgoibarko Izarra elkarteak antolatutako hainbat ekintzatan parte hartu ere bai.

Morkaikok omenaldia egin zion, elkarte honek antolatzen duen Finalista egunean jo izanagatik.

(;) Musika Bandako kide eta Parrokiako koruko abeslari ere izan zen. Maalako Elizan abesten zuen. Elgoibarko atabal joleak ikasle izan zituen, tartean gaur egun atabala jotzen duen bere biloba Iñaki Gofii.



**GARAY**

**HARATEGIA**  
**URDAITEGIA**

San Frantzisko, 9. Tel. 74 13 92

Andoni Tellabide S.L.

• Berogailuak • Suteen  
aurkako instalakuntzak  
• Gas instalakuntzak

**magu's**

ILEAPAINDEGIA  
EDERGINTZA

San Roke 6 behea tel. 74 34 91

**MALAPE**



### Saskibalo talde berria

Elgoibarren saskibalo talde bat sortzeko asmotan dabil zenbait gazte. Taldeko jokalaririk izateko 17 urte izan behar dira gutxienez. Interesik edukiz gero, astelehenean, hilak 6, Kultur Etxean arratsaldeko 7etan izango den bilerara agertu.

### Udako kirol kanpaina

Udaleko Kirol Zerbitzuak udarako kanpaina ekainaren 27tik uztailaren 29ra bitartean burutuko du. Urtean zehar normalki egiten ez diren kirol iharduerak egiteko aukera izango dugu elgoibartarrok. Haurrentzako zazpi iharduera ezberdin prestatu ditu Udalak eta, gazte eta helduek 10 iharduera ezberdinen artean aukeratu ahal izango dute. Izena emateko epea ekainaren 6tik 21era artean izango da Kirol Zerbitzuan.

### Mendaroko XV. Kross a

Larunbatean ospatu zen mendaroko XV. Kross Herrikoia. Guztira 52 korrikalarik hartu zuen parte. Hona hemen sailkapena: Jon Pozok eta Maider Kortak (Azpeitia) irabazi zuten alebinetan eta aurreneko mendarotarra Jon Larrañaga. Infantiletan Iker Panizo eta Goreti Subinas (Deba) eta herritarren artean Sergio Cebrian eta M.Carmen Seijas. Jubeniletan, Jon Gonzalez (Deba). Helduen mailan Santi Maiztegi (Urola taldekoa) izan zen txapelduna, M.Eugenia Gozalez (Elgoibar) lgo neska eta aurreneko mendarotarra Jesus Larrañaga. Armando Lopez (Eibar) eta M.Jose Gil (Arrasate) izan ziren beteranoen artean nagusitu zirenak.



**Jesus arl Gablionario:**

### "Arbitrajeak fijoak izango dira datorren urtean"

**Lehen urtea egin duzue futbito txapelketaren antolakuntzan. Baloraziorik?** - Ona. Bueno, arazoak euki ditzugu, arbitroen kontuarekin, batez ere. Lenengo urtea izateko ondo; gu behintzat, ahalegindu gera. Hasieran talde kopuruarekin justu justu ibili ginan. Kalian jende guztiak esaten zaban ia noiz hasi bihar zan futbitoa, baina ez zauan inor antolatzeke prest. Azkenean hiru edo lau geratu ginan antolakuntzarako.

**1 Zeintzuk ibili zarete antolakuntzan?** - Hasieran Javi De la Cruz eta Agustin Santiago, gero ni. Beste batzuek ere egon dira.

#### 1 Jarraitzeko asmoarekin?

Momentuz bai. Badakigu gogorra dala igandero igo bihar zeralako Urasandira. Asmoa jarraitzekua da.

**1 Zein izan da topatu duzuen arazorik handiena?** - Arbitrajeak taldeek egin dituzte txandaka, jokalaririk eta arbitro izan gera. Oso zaila da arbitratzea, lehenago ez geraldako hortan ibili. Jokatzen zaudenian gauza bat pentsatzen dozu baina arbitratzerakuan beste bat, eta klaro,

denak gera lagunak baina askotan batzuei ez jakue partiduan gertatutakua ahazten. Txarrena hori da.

#### 1 Zer lortu nahi izan duzue zeuek arbitratzearekin?

- Arazoa da, ez zaua la arbitrorik. Igande-

- Adina: 27
- Antolakuntzako lanaren alde txarra? Igandero joan beharra.
- Alde ona? Satisfazioa ematen duela.
- Jokatu ala antolatu? Jokatu, dudarik gabe,



ro hara igotzia guretzako rolo bat baldin bada, arbitroentzako ere bai. Jendea hain bizkor ez erretzeko, taldeak arbitrauko gendula erabaki zan. Horrela ikusi dogu arbitratzerakuan dauden arazoak. Uste dot protesta gutxiago egon diazela. Azken fasian 8 pertsonak arbitratu dogu, diferentzia handirik ez egoteko.

**1 Datorren urtean ere berdin izango al da?** - Arbitrajiak talde batek egitia nahi dogu, fijuak izatia, hasieratik juntau eta arauak erabakitzeko. Antolakuntzarako 12 laguneko talde bat osatzia nahiko gendun; horrela ez ginake igandero igo biharko; turnuak egingo zian.

**1 Sari banaketa Guass-ean egin duzue? Nolatan?** Guasseko jabeak zerbait berezia egin nahi zuenez, ba, ideia sortu zan. Oso ondo portatu da gurekin.

**1 Erakunde publikoaren laguntzarik izan al duzue?** - Ez, talde bakoitzak 15.000 pta jarri ditu eta dirua sobrau danez, bukaeran afari bat egin dogu. Diruz lagundu digutenak dendak eta aurrezki kutxak izan dira.

## ARMUETA

Baserriko haragietan berezia



San Badolome, 16.z 74 06 40

# dtetueta

ZAPATAK ETA POLTSAK


San Frantzisko 2 - .u 74 04 95 - ELGOIBAR

## INTERIORES

- SUKALDEAK ETA BAINU ALTZARIAK  
- ATE TOLESGARRIAK  
- BARRUKO ARMAIRUAK  
- DEKORAZIO GATAK

Tel 74 40 55 - 74 40 19.  
Errosario 15 Behea.





**I** oan den larunbatean, hilak 28, liga eta kopako finalekin bukatu zen aurtengo futbito txapelketa. Ohi ez bezala, azken bi partidua Olaizaga kiroldegian jokatu ziren, baina hala ere, jendearen erantzuna ezin hobea izan zen, harmailak jendez gainezka zeuden eta. Finalerara heldu ziren lau taldeek txapeta eskuratzeko aukera eduki arren, Peduscrorentzat izan zen kopa eta Mimox taldearentzat ligako garaipena. Pedruscok 7 eta 1 irabazi zion Sporting-i hasera parekatua izan zuten arren. Pedruscok lehen golak sartu orduko erabaki zen partidua. Azpimarratzekoak izan ziren Beteluk, Sporting-eko atezainak egindako geldiketak.

Ligan, berriz, Mimox nagusitu zitzaion Arroak taldeari, edo beste modu batera esanda, gazteek "zaha-

rrak" menperatu zituzten. Lehen zatiaren bukaerarako emaitza nahiko argia zen jada: 3 eta 0. Nagusitasunez irabazi arren, ezin daiteke esan Mimox-ek erraz irabazi zuenik, tentsioa handia izan baitzen momentu oro. Azkenean, Mimox txapeldun.

Partiduez gain, beste ospakizun batzuk izan ziren larunbatean. Kiroldegian bertan, esaterako, gaueko 10etan, txapelketako partaide guztiek afaria izan zuten eta ondoren, Guassean sari banaketa. Aipatzekoa, 13 urtez txapelketako antolakuntzan jardun ondoren eta egindako lanaren errekonozimendu modura, Juliori eman zitzaion oho-rezko oroigarria. Azkenik, antolakuntzak eskerrak eman nahi dizkie txapelketa burutzen lagundu duten herriko dendei eta aurrezki kutxei.

## SAILKAPENA

### LIGA

- 1-Mimox
- 2-Arroak

### KOPA

- 1 -Pedrusco
- 2-Sporting



### D Jokalaririk goleatzaileenak:

- A taldea: Diez (Karkis)
- B taldea: Romero (Garaje Garcia)
- 2. fasea: Asier Arrieta (Sporting)

### D Gol gutxien jaso dituzten atezainak:

- A taldea: Joseba (Mimox)
- B taldea: Iglesias (Garaje Garcia)
- 2. fasea: Ubera (ametsa)

### D Jokalari onena:

- Asier Arrieta (Sporting)

### Talderik istilutsuena:

- Dinamo Kalimotxo

## boti 40t4ittil 94

### EKAINAK 4, LARUNBATA

- Goizeko 11 etan:  
HAUR JOLASAK, Plaza Handian
- Arratsaldeko 6etan: Plaza Handian,  
EUSKAL DISKOTEKA ETA TXOKOLATE JANA.

### EKAINAK 5, IGANDEA

"LURRA ETA HIZKUNTZAREN EGUNA",  
MORKAIKOREKIN batera antolatua.



ANTOLATZAILEA: Elgoibarko Izarra K.E.

### EKAINAK 9, OSTEGUNA

- Arratsaldeko 3etan:  
Haurrentzako ANTZERK[A Kultur Etxean
- Arratsaldeko 7etan: MAHAINGURUA:  
Gaia; "Larunbat arratsaldeak Elgoibarren".  
Kultur Eixean

### EKAINAK 10, OSTIRALA

- Gaueko 10etan: ANTZERKIA Herriko Antzokian  
"HILTEGIA" obra eskainiko du EKEKEI A. T.k.

LAGUNTZAILEAK: Elgoibarko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

## Eskubaloi Taldeko bi jokalarik selekzionatuak

Elgoibar K.E. Eskubaloi Taldeko infantiletan jokatzen duen Leticia Astray gaztea, Espainia mailako kontzentrazio baterako deitu dute. Infantilen kontzentrazio honetara Euskadiko 10 jokalarik joango dira, lau Gipuzkoatik, beste lau Bizkaitik eta bi Arabatik, horietako bat Leticia elgoibartarra izango delarik. Eskubaloi taldeko beste jokalarik batek, kasu honetan jubeniletan jokatzen duen Jon Zubiaurrek, Gipuzkoako selekzioarekin jokatu du estreinekoz. Datorren urtean Euskadiko jubenilen selekzioan arituko da.

## Zilarrezko domina Gorka Garaterentzat

Ibai gimnasioko Gorka Garatek Iruñean izandako Judo Txapelketako "sector" deritzan fasean zilarrezko domina lortu zuen eta beraz, Espainiako Judo Txapelketako finalerako pasea ere bai. Euskadiko 15 urtez azpiko selekzioan parte hartu zuen Gorkak, Aragoa, Nafarroa eta Cantabriako judoken aurka aritu zelarik. Zilarrezko domina honi esker, ekainaren 18an eta 19an finala jokatzeke aukera izango du judoka elgoibartarrak.

## Domekan, Final 1. eguna



**E Mendi itzuliaren beste aurpegia. Ibiltzea bezain garrantzitsua da jatea.**

**D**omeka honetan, hilak 5, Mendizale Astearen barruan, Finasta Eguna eta Elgoibar-ko Izarra Kultur Elkartearekin batera "Lurra eta Hizkuntza" eguna ospatuko du Morkaiko Mendizale Elkarteak. Egun osoko jaia izango da. Goizeko mendi irteeraren ondoren mendi txapelketari dagokion domina banaketa egingo da San Pedron. Harnar mendi, hamabost eta hogeita mendi egin dituzten hurrek jasoko dute domina. 20.000 metrorekin 20 mendizale daude eta 40.000 metrorekin bakarria, Juan Carlos Exeberria, alegia.

### Mendi itzulia

Maiatzaren 29an burututako mendi itzulian 69 mendizalek parte hartu zuten hauetatik 65ek bukatu zuelarik itzulia. Lehen taldea, Iñaki Ulazia, Tomas Peña eta Mikel Alberdik osatutakoa izan zen eta 6 ordu eta 57 minutu behar izan zituzten. Azken taldeak 12 ordu behar izan zituen 43 kilonnetroak eiteko.

Morkaikok eskerrak eman nahi dizkie horniketarako janariak eman eta egunean zehar antoIakuntzan lagundu zuten honoko hauei: tivo Martinez, Valentin Txurruka, Jose Luis Arana eta Iñaki Beristain.

## LURRA ETP 1-112KUNT2REN EgUNA"

MORKAIKOK eta ELGOIBARKO IZARRAK antolaturik  
EKAINAREN 5ean, IGANDEA



- Goizeko 8,30etan: Txistulari Udaltaldearen ongietorria.
- Goizeko 9etan: Morkaikora irteera. Plaza Handitik.
- Goizeko 11etan: Hiru-Iturrin hamarretakoa.
- Eguerdiko 12,30etan: Meza San Pedroko elizan.
- Ondoren: Finalista Eguneko domina banaketa. Eta ondoren Haritz Dantza Taldeak eta Txistulari Udaltaldeak Gipuzkoako Soka Dantza eskainiko dute.
- 2,30etan: HERRI BAZKARIAK SAN PEDRON:

Nagusiena (jatetxean):


- Jan eta edana
- Dantzaldia

Haurrena (pilotalekuan):

- Jan eta edana (EROSKiren laguntzaz).
- Jolasak



## 200 ikasle arituko cilra muslkes <olako dantza jatlatldlan



I nazio Bereziartua musikesko-lako dantza ikasleek ikasturte bukaerako jaialdian parte hartuko dute hil honen San, arratsaldeko 8etan. Jaialdia Herriko Antzokian izango da.

Guztira 200 haur arituko dira. Urte osoan egindako lana ikusteko aukera ezin hobea izango da, Arantxa Aginako, Edurne Odriozola, Abel Iriondo eta Jon Lizarralde irakasle izan dituztelarik. Jaialdia, euskal dantzen ingurukoa izango da soil soilik. Herriko Antzokiko berritze

lanak bukatu berri direnez, jaialdiaren antolatzaileek ez dute teknikoki jaialdia behar bezala prestatzeko aukerarik izan eta horregatik, jaialdia bi zatitan egitea erabaki dute. Datorren irailean egingo da Lourdes Odriozolaren ardurapean gainontzeko dantza estiloei dagokien jaialdia, ikasturtea irailera arte luzatzea erabaki baitute Dantza eta Musika Fundazioko arduradunek. Jaialdiak ordu rerdiko iraupena izango du eta eraberritutako Herriko Antzokian izango da.

## Larunbat arratsaldeetako martxa eztabaidagai

Elgoibarko Izarra Elkartek urtero burutzen duen *Ez dok amaitut 94* egitasmoaren barruan, antzerkia, haur jolasak, "Lurra eta Hizkuntza" eguna eta larunbat arratsaldeetako mobidari buruzko mahaingunta burutuko dira datozen egunotan. Hilaren 4an, goizeko 11 etan hasita eta arratsaldez 6etatik aurrera, haurrentzako jolasak eta euskal diskoteka eta merienda antolatu dituzte Plaza handian. Igandean, hilak 5, Morkaiko Mendizale Elkartarekin batera "Lurra eta Hizkuntza" eguna ospatuko du kultur elkarteak San Pedron. Ekainaren 9an, osteguna, herriko sei gaztek "Larunbat arratsaldeak Elgoibarren" gaiaren inguruan eztabaidatuko dute. Ekitaldia Kultur Etxean izango da arratsaldeko 7etan. Moderatzaile lanetan Aitor Zabaleta kazetaria arituko da eta mahaikideak Maria Bergara, Aitor Gurrutxaga, Maider Lizundia, Ekaitz Baskaran, Patxi Zabaleta eta Virginia Senosiain izango dira. Azkenik, ekainaren 10ean gaueko 10etan, Ekekei taldearen "Hiltegia" antzeslana taularatuko da Herriko Antzokian.



Jose Antonio  
Gorostiza  
"Watson"



Ekainak 4, larunbata, arratsaldeko 7etan Jose Antonioren izenean meza bat emango da Parrokian. Bertara joan nahi duzuen guztioi gonbidapena luzatu nahi dizuegu bere emaztegaiak eta lagunak.

## 11.4~ atienzaft odatide4 e9itadowal

IMHk eskaintzen dituen aukera guztien artean erakargarriena ikasle-trukatze egitasmoa da eta honi esker ikasketen zati bat atzerrian egiteko aukera. IMHko arduradunek urtero hainbat proiektu aurkezten dituzte bai Diputazioan, bai eta Europar mailako beste erakunde batzuetan ere. Honela, dirulaguntzak jasoz, zentru honek eskaintzen dituen pareko ikasketak ematen dituzten zentruekin jartzen dira kontaktuan.

deia honen helburua ikasleek kultura ezberdinak ezagutzea da bai eta tnakina-erramintak beste herrialde batzuetan bizi duen egoera ere. Bide batez, etorkizun-ean Europa mailan sortuko diren profesionalekin kontaktuan jartzen dira.

Kurtso haseran, MFMko ikPs-leak Dinamarkan izan ziren, Aalbor Tesniske Sehole de Aalbor eskolan.

Urtarrilean, Dinamarkako eskolakoak Elgoibarrera etorri ziren hamar egun pasatzera. Denbora horretan, "sistemas flexibles" izeneko ikastaro bat egin zuten eta Beasaingo CAV enpresan ere izan ziren, besteak beste.

Duela gutxi Tesalonika-ko (Grezia) informatikako bost ikasle eta irakasle bat izan geniten IMHn. Hauek, Euskal Herriko industriaren egoera ezagutu nahi zuten. Agurre-



• 1] Dinamarkara joan zen ikasle talde bat Aalborg eskolaren aurrean

an, euskal zein greziar dantzen ikuskizun bat izan zen.

Datorren ekainaren 6an MDIko ikasleak Milton Keynes-era doaz, Ingalaterrara. Hiri hau, 2. Mundu Gerraren amaieran sortu zen eredu-uzko hiri bezala. Bertako zentruak OHOn hasi eta unibertsitate mailara arteko ikasketak ematen ditu. Guztira 13.000 ikasle daude. IMHtik 11 ikaslez osaturiko talde bat doa, injenieritza sailean CAD-CAE ikastaroa egin zutenak.

Guzti honetaz gain, moduloak

burutu eta gero, postgradoko ikastaro bat egiteko aukera ere badago IMHn. Azken hauentzat ere antolatzen dira bidaiak.

Automatizazio Industrial eta Fabrikazio Flexibleen Sistemako ikasleak produkzio gestioko ikastaro bat burutuko dute ekainean Aalborg-en. Kalitatezko postgradokoak Bolzanora doaz ekainaren 10ean. Komertzio teknikariek, berriz, uztailan, kanpo kotnertzioari buruzko ikastaro bat egingo dute.

IKASTEAK

### Nona hemen Dinamarkan izan zen ikasle batek dioena:

"Esperientzio oso aberasgarria izan da. Bi asteko oporraldia izateaz gain, jende berria ezagutzeko aukera izan dugu. Haserako ideia CAD-CAM izeneko ikastaro bat egitea zen baina, egia esan, ez genuen lan gehiegi egin beharrik izan. Hiru orduko klaseak genituen egunero eta erloju bat egin genuen, oroigarri bezala ekarri genuena. Gainontzean, hiria ezagutzen eta enpresko ezberdinei bisitak egiten eman genuen denbora".



**ANCHUST**

Sa

**ZERAMIKAK**

Erakusketa eta bulegoa:  
Antonio Arrillaga, 6-8  
behea  
83 Postakutxa  
Tel. 74 33 44 - 74 06 92  
Fax 74 37 11

Biltegia:  
Arregitorre, 10 - 14 behega  
Tel 74 20 38 - 74 23 71  
20870 - ELGOIBAR  
Gipuzkoa



**karkizano**

San Franzisko 12-14, Tel 74 05 49

*Sa*

**San Bartolome 18**  
**74 08 49**



## Salerosketak

San Roke auzoan GARAJE BAT alokatzeko daukat.  
tr 74 00 67 Martin

KANPING KARRO BAT eta osagarriak saltzen ditut. Egoera onean.  
74 19 39 Mari Sol

ARDI TXAKUR kumeak salgai dauzkat.  
lf 74 31 35  
Lizundia Txabola baserria

GARAJE BAT SALTZEN DUT Olosopeko (Olaso Industrialdea) 40. zenbakian, bigarren solairuan.  
'zr (941) 11 03 05 Rafa

KANPING DENDA HAUNDI BAT saltzen da. Oso berria dago.  
15t 74 15 22

Hilabeteko SETTER txakur kumeak salgai.  
ã 12 14 82

YAMAHA TZR 80 bat saltzeko daukat. SS-AB  
Z. 74 41 12 Nekane

Ford Eseort gorria saltzen dut. SS o883 Al.  
74 15 24

GARAJE BAT saltzen da pista beltzean. Prezio egokia  
13 74 08 79 Julian

PISU BAT daukat salgai Ermuaranbiden  
s 74 27 12

ETXE BAT SALTZEN dugu Pedro Muguruzan. Egoera oso onean eta guztiz amueblatua. Bigarren pisua.  
zr 74 08 57

BUNGALOW BAT ALOKATZEN DUT Santa Polako hondartzako lehen ilaran. Ekaina, uztailea eta iraila.  
17 74 27 02 Ana

Apartamentu bat daukat Benidorm-en alokatzeko moduan. Levanteko hondartzako lehen ilaran. Igerilekua eta aparkalekua dauka. Baita labadora eta aire girotua ere.  
Ti 74 16 57 / 11 32 15

PISU BAT SALGAI Altzolan. Karmen plaza 3-1 ezkena. (15 milioi)  
Interesatuok etorri bertora.

## Bestelakoak

Erloju bat aurkitu dut.  
74 27 06

BARREnera umeen pultsera bat ekarri digute. Galdu duena etor dadila jasotzera.  
74 41 12

Bigarren eskuko FRIGORIFIKO BAT HARTUKO NUKE. Deitu 10etatik-12etara  
IT 74 06 64 Nekane

Maiatzaren 2lean ARGAZKI KAMERA BAT GALDU nuen Arrate eta Kalamuako inguruetan.  
v 74 30 20

## Lana

Klase partikularrak ematen ditut. Matematikak, kosteak eta kontabilitatea orokorrean. Ekaina eta uztailean.  
Tr. 74 21 65 Jabi


31 urteko neska etxeko lanak, umeak zaindu, garbiketa lanak eta antzerako lanak egiteko prest dago.  
Tr 17 17 40

## Hildakoak 111

Migel Alonso Ordoñez (63 urte) maiatzak 1  
il Bixente Arakistain IzagIrre (80 urte) maiatzak 3  
Ramon Sanchez Castaño (65 urte) maiatzak 3  
0 Maria Lucia Mardaras Zubizarreta (93 urte) maiatzak 5  
) Marina Muguruza Etxeberria (83 urte) maiatzak 6  
Alejandro Unanue Gabilondo (83 urte) maiatzak 7  
Feliciano Diez Rodriguez (83 urte) maiatzak 13  
Cesareo Garcia Ferreiro (75 urte) maiatzak 16  
IJose Antonio Gorostiza (34 urte) maiatzak 18

## Jaiotakoak

Silvia Parras Maldonado (maiatzak 4)  
Maialen Solabarrieta Del Valle (maiatzak 4)  
Omar Gonzalez Dalmeida (maiatzak 7)  
I Ane Astiazaran Makazaga (maiatzak 10)  
Enara Kastrillejo Tavira (maiatzak 21)



# JUARISTI \_roztegia

Egur-aluminiozko **UNIFORM** leihoak, egurrezko leihoen edertasun eta aluminiozkoen teknika batzen ditu.

• • Ez dauka mantenu beharrik

Haizea eta urarentzat isolatua

t=> Kolore efektu ikusgarriak

wi> Betirako leihoak

Arotz, kontratista eta etxe berrikuntzetarako mundiala.

BULEGOA:  
Ubitartre, 2 behe. Tel.: 74 13 33

LANTEGIA:  
Santa Ana, 16. Tel.: 74 29 94

## 4 | LARUNBATA

11,00 HAUR JOLASAK

OHOKO 1, 2, eta 3. mailako  
haurrentzat

✓ Plaza Handian

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

18,00 HAURRENTZAKO EUSKAL  
DISKOTEKA ETA MERIENDA

OHOKO 1-6. mailako haurrentzat

✓ Plaza Handian

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

## IGANDEA

12,30 HERRIKO ANTZOKIAREN  
INAUGURAZIOA

LURRfi ETP 1-1121.1/V2/4 EqUNP

8,30 TXISTULARIEN KALEJIRA

9,00 MORKA1KORA IRTEERA

11,00 HAMARRETA KOA

V Hiru Iturrin

12,30 MEZA

✓ San Pedroko elizan

Ondoren FINALISTA EGUNeko  
DOMINA BANAKETA

14,30 BAZKARIA ETA DANTZA

## ASTELEHENA

19,00 SASKIBALOI TALDEA  
SORTZEKO BILERA

✓ Kultur Etxean

## ASTEAZKENA

20,00 DANTZA JAIALDIA

Inazio Bereziartua musikesko1ako  
ikasleak.

✓ Herriko Antzokian

## OSTEGUNA

15,00 HAURRENTZAKO  
ANTZERKIA

**Kurutziaga** Ikastolako Antzerki  
Taldearen "Urkuletaseko  
Bainuetxea" antzeslana.

✓ Herriko Antzokian

OHOKO 6, 7 eta 8. mailakoentzat  
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

19,00 MAHAINGURUA

Gaia: "Larunbat arratsaldeak  
Elgoibarren"

Mahaikideak: Maria Bergara, Aitor  
Gurrutxaga, Maider Lizundia,  
Ekaitz Baskaran, Patxi Zabaleta eta  
Virginia Senosiain.

Moderatzaile: Aitor Zabaleta.

t^ Kultur Etxean

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

## txanda

### FARMAZIAK:

4, larunbata: Etxeberria

5, igandea: Etxeberria

6, astelehena: Ormazabal

7, asteartea: Ormazabal

8, asteazkena: Ormazabal

9, osteguna: Ormazabal

10, ostiraia: Yudega

### OKEIHR°EGUA:

5, igandea: EIZAG1RRE


## IO OSTIRALA

22,00 ANTZERKIA

EKEKEI antzerki taldearen  
"Hiltegia" antzeslana.

✓ Herriko Antzokian

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra



1.1 MM, 11kC)

Errosario 3{)

tel: 74 02 84 Elgoihar

- \* IDAZMAKINEN SALMENTA  
ETA KONPONKETA
- \* MULTIKOPISTAK
- \* FOTOKOPIADORAK
- \* PLANOEN 13IRREGILEAK
- \* ERLOJU INDUSTRIALAK
- \* MARRAZKETA MATERIALA
- \* INFORMATIKA
- \* FAX



GAZTEENTZAKO  
MODA

Cordon Vilarchao, c.b

DEKII:DRA.ZIC) 44

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,  
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,  
GOTELE ERROTU1AZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, 7 behe. Tel.74 28 74 - 74 05 70



Arrllagay  
INPRIMATEGIA

DISEINUA -FOTOKONPOSIZIOA- ETIKETAK, CARPETAK ETA  
KARTELAK, FOILETOAK, KATALOGOAK- TIPOGRAFIA- OFFSET

Trenbide, 13 behea.ELGOEBAR. z 74 01 87 Fax: 74 27 411-1





**sake**

KOOPERATIBAK

# INEKO

**ITZIARKO NEKAZARI KOOPERATIBA**

- Ongarriak Haziak Ureztatze sistemak
- Baratze eta jardinerako tresnak

■ BEZERO BAKOITZARI EGOKITUTAKO PENTSUAK ETA ELIKAGAIAK

■ ZILO BOLAK EGITEKO PLASTIKOA

**P5umitrE:**

- BELARRA ENSIATZEKO PLASTIKOEN PRODUKZIOAN NAGUSI
- KOLOREAK: ZURIA ETA BELTZA.  
HIRU KAPAKO PLASTIKOA GUK BAKARRIK EGITEN DUGU.
- KALITATEA ETA PREZIOAREN ARTEKO ERLAZIORIK ONENA.

**EZ DIEZAZUTELA Z1RIA SARTU IMITAVOREN BATEKIN**



Itziarko industrialdea E-13 ITZIAR - DEBA Tel: 19 93 11 11 - 19 93 30 Faxa: 19 92 70

# INDARRAK ELKARTZEKO GARAIA DA



Andoni Ganboa

Josu Jon Imaz

Jao Luis Etxegarai

Juan JoM Ibarretre







# MAPFRE

ASEGURU ETXEA

San Frantzisko 40 behea. 74 05 82 - 20870 ELGOIBAR



Bezere guztioi  
MAPFREren bulegoa  
zuzenbice Derria n  
(San Frantzisko 40)  
zabaldu dugua  
jakinarazten dizuegu.

ERA GUZTIETAKO  
ASEGURUAK EGITEN  
DITUGU:

- Fontesoros
- Autornobit aseguruak
- Istripu aseguruak
- Etxebizitzak
- Bizitza aseguruak
- Zahartzarorako aseguruak



*9#14 4o ett peitiadm forom aae isteceed, ~4.4.  
lasy et4 ife~ imstfx daymiNtopari4 94411*